
Kutxabank Taldearen Jasangarritasun Politika

2024ko maiatza



Aurkibidea

1. Sarrera: Kutxabank Taldearen konpromisoa jasangarritasunarekin ..	3
2. Politikaren alderdi formalak.....	6
2.1 Helburuak.....	6
2.2 Aplikazio eremua.....	6
2.3 Elaborazioa eta gobernantza.....	6
2.4 Politika gainbegiratzea.....	6
2.5 Baliozkotasuna, aldizkako berrikuspena eta hedapena.....	7
3. Aukerak eta arriskuak.....	8
3.1 Aukerak.....	8
3.2 Arriskuak.....	9
4. Printzipioak.....	10
5. Jardueren ildo estrategikoak.....	12
6. Interes-taldeekin konpromisoak.....	14
7. Printzipioen antolaketa eta gobernantza esparrua.....	18
7.1 Erakunde eredua.....	18
7.2 Gobernu eredua.....	18
7.3 Barne kontroleko organoak.....	19

1. Sarrera: Kutxabank Taldearen konpromisoa jasangarritasunarekin

Kutxabank Taldeak (aurrerantzean, Taldea) jasangarritasuna barne hartzen du egunerokotasunean ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreak kontuan hartzen dituelako. Izan ere, Taldearen erakunde ereduak gizarte faktorea barne hartzen du.

Taldeak 2012ko urtarrilaren 1ean hasi zuen jarduera. Akziodunak hura osatzen duten eta finantza negozioa hartzen duten hiru erakundeak dira -BBK, Kutxa eta Vital-. Bezeroak dira lehentasuna eta negozio eredu hurbiltasunean, konfiantzan eta epe luzerako harremanean oinarritzen da. Kutxabankek gizarteari lortutako irabazien parte bat gizarte ekintzen bitartez itzultzeko konpromisoa jarraitzen du izaten, presente dagoen lurralde bakoitzean. Izan ere, atxiki gabeko onurak sozietate osoari itzultzen zaizkio.

2015ean mundu mailan jasangarritasunean inflexio-puntu bat egon zen, Agenda 2030 eta Nazio Batuen Erakundearen Asanblada Orokorraren Pariseko Hitzarmena. Hitzarmena funtsezkoa izan zen, izan ere, lehenengo aldiz, legez loteslea zen ingurumenaren inguruko nazioarteko itun batean «finantza-fluxuak klimarekiko garapen erresiliente batera garamatzen ibilbide batekin eta berotegi efektuko gasen isurpen baxuekin bateragarria den mailan zehaztu baitzen» (2c artikulua).

2018 EBrentzat erabakigarria izan zen, izan ere, Europar Batzordeak (EB) Finantza Jasangarrien inguruko lehen Ekintza-plana aurkeztu zuelako, hiru helbururekin: **i)** kapitalaren fluxuak inbertsio jasangarrietarantz birzuzentzea, **ii)** klima aldaketaren ondoriozko finantza-arriskuak kudeatzea eta **iii)** gardentasuna eta epe luzea sustatzea. Gainera, nabarmendu behar da 2020an Europako Banku Zentralak klimarekin eta ingurumenarekin lotutako arriskuei buruzko Gida argitaratu zuela, arriskuen kudeaketa eta komunikazio arloko gainbegiraleen espektatibak direnak, gainbegiraleen rolean modu mailakatuan bare hartzeko xedez.

Espanian, 7/2021 Legea, aldaketa klimatikoa eta trantsizio energetikoari buruzkoa ere finantza sektorearentzako erabakigarria izan zen, aldaketa klimatikoaren arriskua integratzeko betebeharrak ezartzen duelako: **a)** merkatu arautuetan negoziatzeko onartuta dauden baloreak dituzten erakundeek, kreditu erakundeek, aseguru eta berraseguru erakundeek eta sozietateak tamainagatik (32. artikulua) eta **b)** klima aldaketa finantza eta energia sisteman

(33. artikulua).

Horrez gain, arautzaileen, gainbegiratzailen eta nazioarteko erakundeen gomendio eta eskakizunak hartu dira erreferentzia gisa. Aurreko garapenak gidatu dituzte eta banku jasangarriaren ereduak garatzen jarraitzeko helburuekin Taldeak burutzen dituen prozesuetan aintzat hartzen dira, baita interes-taldeak babesteko ere 2050ean neutraltasun klimatikoa lortzeko sistema produktibo jasangarriagora egiteko prozesuan zehar. Aintzat hartutako erreferentzien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Europako Banku Zentralaren argitalpenak, besteak beste, *Klima eta ingurunearekin loturiko arriskuei buruzko gida: Gainbegiraleen espektatibak arriskuen kudeaketaren eta komunikazioaren arloan* eta beste batzuk¹, Europako Banku Agintaritza², Espainiako Bankua, *Network for Greening the Financial System* (NGFS), eta *Task Force on Climate-Related Financial Disclosures* (TCFD)³ gomendioak.
- Taldeak Laneko Nazioarteko Arauak (*International Labour Standards* - ILO ingelesez) aplikatzen ditu. Arau hauetan zerrendatutako oinarritzko printzipio eta eskubide guztiak langile guztientzako eta jarduera guztientzako dira.

Lehen aipatutako kanpoko erreferentziez gain, gutxienez barruko bi erreferentzia hartu behar dira kontuan: Administrazio Kontseiluaren Araudia, batez ere funtzioei dagokienez (ikus 7.2 atala) eta Jokabide Kodea.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Taldeak jarduerak ekonomia errealean eta gizartean duen eragin positiboa areagotzeko asmoa duela aipatu beharra dago, ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreak kontuan hartuz, berotegi-efektuko gasen emisioetan intentsiboa ez den produkzio sistema baterako trantsizioan eragile aktiboa izanik. Hala, ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreak ildo estrategikoetan (misioa, ikuspegia eta baloreak) ordezkatuta daude.

Era berean, Taldea jasangarritasunaren eremuan hainbat ekimenen aitzindari izan da, besteak beste, hauek nabarmentzen dira:

- 2012tik Nazio Batuen Munduko Itunaren sinatzailea.
- 2015tik Espainian bonu soziala jaulki zuen lehen bankua.
- Eusko Jaurlaritzaren bonu jasangarrien jaulkipenen Koordinatzaile Nagusia.
- Nazio Batuen Inbertsio Arduratsuen Printzipioetara atxikitzea.
- 2018an energia % 100 berriztagarria hornitzeko elektrika batekin epe luzerako akordioa sinatu zuen lehen finantza erakundea.
- 2021ean kudeaketa aktiboko fondoan %100 izan duen sistemaren lehen kudeatzailea, Europar Batasuneko Inbertsio Jasangarrien Taxonomiaren 8. artikulua araberan (2020/852 Erregelamendua), Balore Merkatuaren Espainiako Batzordeak baimenduta.
- .../...

Talde osoak du jasangarritasunarekin konpromisoa, Batzordea eta Goi Zuzendaritza barne. Jasangarritasunak Taldean duen garrantzia Plan Estrategiko ezberdinetan azaleratzen da, non orokorrean, jasangarritasuna eta zehazki, aukerak eta klima eta ingurumen arriskuek jarduteko ardatz nagusienetako bat osatzen duten:

¹ Good practices for climate-related and environmental risk management: Observations from the 2022 thematic review and ECB report on good practices for climate stress testing

² EBA/CP/2024/02 – Consultation paper – Draft Guidelines on the management of ESG risks.

³ TCFD taldearen gomendioek **governantzan, estrategian eta arriskuen, metriken eta helburuen kudeaketan** jartzen zuten arreta. TCFD taldeak klima aldatetari buruzko finantza informazioa zabaltzeko gomendio esparrua ezarri zuen, nazioartean erreferentzia izan direnak 2023aren amaieran desegin zen arte, Finantza Egonkortasunerako Kontseiluak (FSB) IFRS fundazioari eskatu zionean konpainien aurrerapena monitorizatzeko, klima aldatetaren informazioa zabaltzeko dagokionez.



Gobernu Organoek behin eta berriz diseinatutako eta monitorizatutako lan ildo eta xede eta adierazle espezifikoekin.

2. Politikaren alderdi formalak

2.1 Helburuak

Dokumentu hau Administrazio Kontseiluak funtzioak betetzeko eta Taldearen Jasangarritasun Politikaren ildo orokorrak formalki ezartzeko tresna da.

Gidalerro nagusien helburua Taldeak jasangarritasunean garatuko dituen lerro estrategikoak, jarduteko printzipioak eta laneko egitasmoak bilduko dituen gida izatea da.

2.2 Aplikazio eremua

Jasangarritasun politika honetako edukiak aplikatzeko eremua Kutxabank Taldea da, hau da, Kutxabank S.A. eta Mendeko Sozietateak, eta zuzenean aplikatuko zaie langile, zuzendari eta Gobernu Organoko kide guztiei.

Politika zeharkakoa da. Jasangarritasunari dagokionez, Taldearen jarduera esparrua ezartzen du, sozietateek dagozkien jarduera alorretan hartutako konpromisoak ezarri eta barne hartzea ahalbideratuz, proportzionaltasun irizpidea kontuan hartuz.

Alde horretatik, Taldearen sozietateen Gobernu Organoei Politika honetan ezarritako gidalerroak barne hartzeko erabaki egokiak hartu beharko dituzte, baita funtzioak betetzeko jasangarritasunaren arrisku eta aukerak kudeatu ere.

2.3 Elaborazioa eta gobernantza

Dokumentu honek Administrazio Kontseiluak 2021eko ekainean onartutako azken Jasangarritasun Politika eguneratzen du. Elaborazio eta eguneratze prozesua Jasangarritasun Arloak koordinatzen du, eta Taldearen beste arlo batzuk ere parte hartu dute.

Politika onartzea eta eguneratzea Administrazio Kontseiluari dagokio, Zuzendaritza Batzordeak txostena egin ondoren eta Jasangarritasun Batzordeak proposatuta. Politika hau beste prozedura eta maila baxuagoko gida batzuetan ezarriko da, honen edukiak zabaltzeko.

Politika honetan zehaztutako edukiak garatzeko beharrezkoak diren prozedura gidaliburuak organo eskudunak onartuko ditu, horretarako zehaztutako gobernantzak ezartzen duenaren arabera.

2.4 Politika gainbegiratzea

Politika hau eta horren arabera garatzen diren jarduera guztiak Barne Kontrolaren Funtzioak berrikusteko lanen xede izan daitezke, bakoitza bere eskumenen esparruan.



2.5 Baliozkotasuna, aldizkako berrikuspena eta hedapena

Politika hau indarrean jarriko da Administrazio Kontseiluak onartzen duenean.

Jasangarritasun Politika eta haren edukiak dinamikoak dira eta garapenean jarraitzen dute, gerta daitezkeen berritasun garrantzitsuenak jasotzeko xedez. Hala, urtero berrikusiko da edo Jasangarritasun Arloak aldaketak egitean. Eguneratzeak egin behar badira, horien berri emango zaie organo eskudunei, zehaztutako gobernantzan ezarritakoaren arabera.

Dokumentuaren hedapenari dagokionez, Politika barnean eta kanpoan zabalduko da, dagozkion dibulgazio prozedurak kontuan hartuta (intraneta, webgune korporatiboa), interes-taldeen eskura jartzeko.

3. Aukerak eta arriskuak

Jasangarritasunak (ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreak) erakundeetan inpaktu materiala izan dezake eta, zehazki, finantza erakundeentzat aukera garrantzitsuak izan daiteke, baina baita kudeatu beharreko arrisku potentziala ere.

Jasangarritasun aktore ezberdinekin lotutako aukera eta arriskuak identifikatzea taldearen jardura ildo estrategikoak zehazteko beharrezkoa da, xede korporatiboak zehazte aldera.

3.1 Aukerak

Taldea jasangarritasunean sortzen ari diren aukerak antzematea eta negozio ereduan mailakako integrazioan aurrera egitea ahalbideratzen dioten lan ildo ezberdinak bultzatzen ari da. Ildo horretan, etengabe lan egiten da horiek antzemateko eta aztertzeko, eta alderdi ezberdinei laguntzeko xede komuna mantenduz produkzio sistema jasangarriago baterako trantsizioan (deskarbonizazioa, energia efizientzia, ingurumenaren babesa, aukera berdintasuna), besteak beste. Aurrekoa kontuan hartuta, honako aukera hauek identifikatu dira:

Identifikatutako aukera nagusiak

1. Taldearen kontrako alderdi nagusiei deskarbonizazio prozesuetan laguntzea eta akonpainatzea, eredu produktibo jasangarriagoa izateko eragile gisa
2. Finantzaketa jasangarria bideratzea (eraikuntza jasangarria, mugikortasun berdea, energia efizientzia hobetzea, etxebizitza soziala, enplegua sustatzea, besteak beste).
3. Klima aldaketaren aurkako borroka sustatzen duen inbertsioa eta aurrezpen jasangarria bideratzea edo jasangarritasunarekin konpromiso sendoak dituzten jardueretan
4. Inbertsio oinarria handitzea eta dibertsifikatzea merkatuan jaulkipen jasangarri gehiago izateko
5. Klima eta ingurumen arriskuen kudeaketa egokitik eratorritako ospearen inpaktu positiboa eta ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreak garatzea eta sustatzea
6. Klima eta ingurumen eta gizarte eta gobernantza arriskuen inpaktuari buruzko ezagutza handiagoaren bitartez kudeaketa esparruak indartzea
7. Merkatura informazioa zabaltzean konpromiso publikoa eta gardentasuna
8. Efizientzia propioa garatzea, enpresan jasangarritasuna babesten dituen neurriak ezarri (klimatizazio sistemen urruneko kudeaketa eraginkorra eta automatizatua, argiztapena kontrolatzeko eta argi naturala aprobetxatzeko sistemak, inguratzaile termikoak hobetzea eta klimatizazio ekipoak berritzea)

3.2 Arriskuak

Jasangarritasunari dagokionez, Kutxabank Taldeak (arrisku) faktore hauek hartzen ditu kontuan, arriskuaren kudeaketaren Barne Gobernuaren esparruan zehaztutako Taldearen tipologia korporatiboaren arabera:

- ✓ Klima eta ingurumen arrisku fisikoek klima aldakorraren finantza inpaktuari egiten diote erreferentzia, muturreko fenomeno meteorologiko ohikoenak eta klima aldaketa mailakatuak barne, baita ingurumenaren degradazioa, airearen, uraren eta luraren kutsadura, tentsio hidrikoak, biodibertsitatearen galera eta deforestazioa ere.
- ✓ Trantsizioaren klima eta ingurumen arriskuak erakunde baten finantza galerei dagozkie, zuzenean edo zeharka karbono gutxiago eta ingurumenaren ikuspegitik jasangarriagoa den ekonomia batera egokitzeko prozesutik erator daitezkeenak. Egoera hori, adibidez, ingurumen politikak bat-batean hartzeak, aurrerapen teknologikoek edo merkatuko kliman eta lehentasunetan izandako aldaketek eragin dezakete.
- ✓ Arrisku sozialak Taldeko balizko inpaktu gisa definitzen dira, zuzenean edo esposizioak dituen gizarteen bidez, pertsonen eta komunitateen eskubide, ongizate eta interesen ondorioz. Horren adibide dira (ez)berdintasuna, osasuna, inklusioa, giza eskubideekiko errespetua, lan-harremanak, laneko osasuna eta segurtasuna, haurren esplotazioa, giza kapitalaren kudeaketa eta tokiko komunitateekiko harremanak, baita eremu gatazkatsuetako jarduerak ere.
- ✓ Gobernantza arriskuak Taldeko behin-behineko inpaktu negatiboak dira, gaur egungo edo etorkizuneko kontrako alderdietan edo inbertitutako aktiboetan gobernantza faktoreetatik ondorioetatik eratorritakoak. Gobernantza faktore horietan barne hartzen dira, besteak beste, lidergo exekutiboa, administrazio organoen independentzia, zuzendaritza taldearen osaera, aniztasuna eta egitura, zuzendarien ordainsaria, auditoriak, barne kontrolak, zerga saihestea, ustelkeria eta eroskeria, gardentasuna eta jokabide korporatiboa, baita enpresek edo erakundeek politketan eta prozeduretan ingurumen eta gizarte faktoreak barne hartzeko modua ere.

Taldeak arrisku hauek (arrisku) faktoretzat hartzen ditu, lehendik dauden arrisku kategorien azpikoak (kreditukoak, eragiketakoak, merkatukoak, likideziakoak, ospekoak, partaidetzako sozietateetan eta beste batzuetan).

Beraz, ez dago kategoria espezifikorik Taldearen arrisku tipologia korporatiboan, lehendik dauden arrisku moten kontrol esparruetan txertatu behar direlako. Ildo horretan, arrisku mota bakoitza koordinatzen duten arloak arduratuko dira aipatutako integrazioa bultzatzeaz.

4. Printzipioak

Aurreko guztian oinarrituz, Taldeak jasangarritasunaren eta aukerak baliatzeko eta arriskuak kudeatzeko jarduera ildoen inguruan adierazitako konpromisoari dagokionez, jasangarritasunaren eremu bakoitzean maila altuko printzipio korporatiboak ezarri dira:

Zeharkako printzipioak:

- Negozio eredu jasagarria izatea, jarduerak ekonomian, gizartean eta ingurumenean duen inpaktu positiboa areagotuz.
- Finantza inklusioa sustatzea, garapenerako eta hazkunderako palanka gisa.
- Bezeroekin eta hornitzaileekin epe luzerako merkataritza harremanak ezartzea eta garatzea, hurbiltasunean, gardentasunean eta jardunbide egokietan oinarrituta.
- Gero eta handiagoa den eskaerari erantzuteko jasangarritasuna barne hartzen duten produktu eta zerbitzuen eskaintza egokitzea.
- Taldearen erabaki estrategikoetan eta egunerokotasuneko kudeaketan jasangarritasuna barne hartzea, bereziki aldaketa klimatikotik eratorritako arrisku eta aukeretan eta ingurumenaren babesean
- Arriskuak arintzeko estrategiak planteatzea, Taldearen esposizio maila zaindu eta eusteko, aldi berean bezeroen trantsizioa sustatuz du finantzaketa edo inbertsio tresnen bidez.
- Langile guztien aukera berdintasuna bermatzea eta Taldeak diharduen sektoreko lan baldintza onenak eskaintzea.
- Gardentasuna sustatzea eta alderdi interesdun guztiek informazioa eskura dutela bermatzea.
- Jasangarritasunarekiko sentsibilizazioa sustatzea erakunde barnean eta kanpoan.
- Erakunde nazional eta internazionalekin parte hartzea eta kolaboratzea, Garapen Jasangarrirako (Garapen Jasangarrirako Helburuen 17. Helburua) Munduko Aliantza indartzeko xedez.

Ingurumen ikuspegia:

- Orokorrean, interes-taldeei laguntzea, eta bereziki, bezeroei berotegi-efektuko gasen isurpenetan ekonomia ez-intentsibo baterako trantsizio prozesuan.
- Taldearen ingurumen inpaktua minimizatzea.
- Kapital pribatuaren fluxuak inbertsio jasangarrietara birbideratzea, Pariseko Hitzarmenaren 2c artikuluan eta Europako Batzordearen Finantza Jasangarrien Ekintza Planean ezarritakoaren arabera.



- Klima eta ingurumen faktoreak aukeren eta arriskuen kudeaketan integratzea.

Ikuspegi soziala:

- Gizarte-ekintza eta garapen ekonomikoa sustatzea.
- Interes-talde guztiei aukera berdintasuna bermatzea eta sustatzea.
- Aniztasun funtzionala, finantza hezkuntza eta hizkuntza inklusioa bultzatzea.
- Hornitzaileei giza eskubideak eta lan eskubideak betetzea.

Gobernantza ikuspegia:

- Taldeak gizarte-ekintza estrategia propioa zehaztea.
- Errespetuan eta konfiantzan oinarritutako jokabide etikoa sustatzea.
- Ingurumen, gizarte eta gobernantza printzipioak betetzen direla zainduko duen gobernantza esparru sendoa izatea maila korporatiboan eta Taldeko alderdi interesdunekiko harremanetan.
- Araudia betetzen dela bermatzea eta merkatuko jardunbide egokiak betetzea.
- Taldearen Politiketan eta arriskuen kudeaketaren esparruetan ingurumen, gizarte eta gobernantza arrisku faktoreak barne hartzea.
- Bezeroek Taldearekin harremanak dituzten kanal guztietan egindako transakzioetan ahalik eta segurtasun handiena izatea.

5. Jardueren ildo estrategikoak

Taldearen Plan Estrategikoen barruan, Jasangarritasun Politikan zehaztutako helburu korporatiboak lantzeko, sortzen ari diren aukerak eta ingurumen, gizarte eta gobernantza arrisku potentzialak kudeatzeko jarduera ildo espezifikoak garatu dira.

Jarduera ildo estrategiko hauetan Jasangarritasun Planetan barne hartutako ekimenak daude, ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreak lantzeko planak barne hartuz.

Testuinguru horretan, Gobernu Organoek jasangarritasunaren arloan adierazitako helburu korporatiboak erantzun nahi dieten proiektu nagusiak bilduko ditugu jarraian:

- Negozio eredu jasangarria garatzea eta sustatzea, besteak beste, **Finantzazio Jasangarriaren Barne Esparrua** onartzea.
- Europar Batasunaren jardura jasangarrien **taxonomiaren arabeko jardueren sailkapenean** aurrerapenak.
- Ingurumenari eta gizarteri dagokionez, **sektorekako politikak** garatzea.
- **Taldearen jardura korporatiboaren karbono-aztarna** murriztea.
- **Finantzaketa eta inbertsio jardueren karbono-aztarnaren** zenbatestea, kontrako alderdien informazio errealean eta *Partnership for Carbon Accounting Financials* (PCAF) nazioarteko estandarrean oinarrituta.
- Tarteko **deskarbonizazio xedekak** zehaztea eta zorroaren **lerrokatze maila** neurtzea zero emisio garbiko bideei dagokienez.
- Erreferentziazko agentziek Kutxabanki ingurumen, gizarte eta gobernantza *ratingak* lortzea
- Klima eta ingurumen arriskuei buruzko **materialtasunaren** azterketan aurrera egitea
- Arrisku kategoria bakoitzaren **kudeaketa esparruan** aurrera egitea klima eta ingurumen faktoreak barne hartzeko
- **Lan-harremanak** indartzea, hitzarmen kolektibo, prestakuntza plan, boluntariora korporatibo eta abarren bitartez.
- **Banku fundazioekin** kolaborazioak, dibidendu kopuru esanguratsua eta errepikaria bideratuz, gizarte ekintza garatzen laguntzeko.
- **Berdintasun Plana** onartzea, emakumeen gehiengoa ordeztuz eta kontziliazio neurriak garatuz.
- Tokiko lurraldeetan **sustapen kooperatiboaren finantziaketa** lideratzea, baita erakundeekin hitzarmenak egitea eta gazteentzat onuragarriak diren baldintzetan finantzatzea ere.



Klima eta ingurumen arriskuei dagokienez, Taldeak aurretik aipatutako Europako Banku Zentralak argitaratutako Gida hartu du erreferente gisa. Horretarako, aipatutako dokumentuan ezarritako gainbegiraleen espektatibak betetzeko beharrezko jarduera ildoak koordinatzeko ibilbide orria diseinatu zen.

6. Interes-taldeekin konpromisoak

Taldearen konpromiso orokor eta xede korporatibo nagusiei dagokienez, hauek dira interes-talde nagusientzako zehaztu diren jarduera espezifikoak:

BEZEROAK

Taldeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Hurbiltasunean eta konfiantzan oinarritutako harremana izatea, bezeroekin epe luzerako harremana sustatuz,
- Kalitatezko produktuen eta zerbitzuen eskaintza garatzea, bezero bakoitzaren beharretara egokitua, haien beharrei ahalik eta ondoen erantzuteko.
- Produktu eta zerbitzu gardenak eskaintzea, ulertzeko eta erabiltzeko errazak. Konponbide argiak eta eraginkorrak ematea, prozesuak sinplifikatzeko eta bezeroen kudeaketak arintzeko.
- Etikan, kudeaketaren integritatean eta gardentasunean, jardunbide onenetan, prestakuntza espezializatuan eta langileen profesionaltasunean oinarritutako negozio ereduak garatzen jarraitzea.
- Bezeroen datuen konfidentziasuna babestea, segurtasun estandar altuenak aplikatuz.
- Bezeroekin harremantzeko modu berriei egokitzea, produktu eta zerbitzuen ideia berrieekin, erronka teknologikoari erantzuteko xedez.
- Bezeroei digitalizazio prozesuan laguntzea.
- Inklusioa eta finantza hezkuntza sustatzea.
- Bezeroekin elkarrizketa kanalak ezartzea, kontsulta eta erreklamazioak artatzeko beharrezkoak diren baliabideekin, erantzun pertsonalizatu, bizkor eta kalitatezkoak emateko.

TALDEA

Taldeak osatzen duten profesionalak dira aktibo baliotsuena, hortaz, Taldeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Pertsonak kudeatzea aniztasuna eta aukera berdintasuna errespetatuz, inolako diskriminaziorik gabe.
- Taldea osatzen duten pertsonen segurtasun eta ongizatea babestea, lan ingurune osasungarri eta jasangarria sortuz.
- Bizitza pertsonala eta profesionalaren kontziliazioa sustatzea, Berdintasun Planean ezarritako irizpideen arabera.
- Taldean jasangarritasuna eta boluntarioritza korporatiboa integratzea.

- Talentuaren garapena sustatzea, garatzeko eta egokitzeko gaitasuna duten profilak identifikatuko dituen hautaketa sistema baten alde eginez, etengabeko prestakuntza plana mantenduz.
- Zehaztutako kompetenziak barne hartzen dituen balioespen sistema garatzea, ibilbide profesionala sortzea ahalbideratzen duena.
- Barne komunikazioa eta elkarrizketa sustatzea.

HORNITZAILEAK

Taldeak tokiko lana lehenesten du, lan egiten duen ingurunean ekonomian, gizartean eta ingurumenean inpaktu positibo sortzea ahalbideratzen duena, hortaz, konpromiso hauetan oinarritzen diren kolaborazioak ezarri ditu:

- Kontratazio prozesuetan gardentasuna bermatzea, prozedura lehiakorren bidez garatuko direnak, kontratatu beharreko zerbitzuaren izaerak justifikatutako kasuetan izan ezik. Era berean, hautaketa prozesuetan parte hartzen duten pertsonen objektibotasuna bermatzen da.
- Lanean giza eskubideak eta lan eskubideak errespetatzea.
- Munduko Itunaren printzipioak aplikatzea, lan eskubide eta lan eskubideen errespetatzea, ingurumena babestea, ustelkeriaren aurka egitea eta informazioaren tratamenduan konfidentzialtasuna eta segurtasuna babestea.

AKZIODUNAK ETA INBERTITZAILEAK

Taldeak akziodunekin kolaborazio lotura estua mantentzen du. Hala, Banku Fundazioek jasangarritasunarekin konpromiso eta inplikazio handia dute, baita garapen ekonomiko eta sozialarekin ere.

Taldeak bere inbertitzaile instituzionalekin harreman egonkorrak eta epe luzekoak ezartzeko eta garatzeko konpromisoa du, informazio garrantzitsua komunikatuz/zabalduz, zuzentasun eta gardentasun irizpideen arabera. Taldeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Finantza eta jasangarritasun egoerari buruzko informazio fidagarria publikoki hedatzea, konfiantza esparru egokia eratzeko oinarri gisa.
- Inbertitzaileei inbertsio jasangarrien arloko gomendio eta gidekin bat datozen finantza tresnak emateko beharrezkoak diren baliabideak garatzea eta hornitzea, eta, hala badagokio, hartutako konpromisoak betetzeko ahaleginik onena bermatzea.
- Bi alderdientzat onuragarriak diren lankidetzak harremanak ezartzea.

SOZIETATEA

Gizartearekiko konpromisoa eta balio ekonomiko eta sozial jasangarriak sortzea Taldearen misioaren parte dira. Banku Fundazio akziodunei egindako dibidenduen ekarpenek aukera ematen dute aurreko konpromisoa denboran zehar modu iraunkorrean betetzeko, negozio ereduaren egonkortasunari, arrisku profil ertain-baxuari eta kaudimen maila handiei esker.

Taldeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Eragile sozial eraldatzailea izatea.
- Herritarrekin ezagutza finantzarioa partekatzea.
- Boluntariora korporatiboaren bitartez gizartearentzako positiboak diren jarduerak babestea.
- Garapen jasangarriari dagokionez, jardunbide egokiak z eta gizartea sentsibilizatzea.
- Sektorean finantza inklusioa sustatzea eta bultzatzea, pertsona guztien irismena ahalbideratuz, talde zaugarriak barne.
- Aniztasuna eta berdintasuna sustatzea.
- Jasangarritasunaren garapenean oinarritzen diren aliantza eta elkarte nazional zein internazionalekin lankidetzatza sustatzea.
- Banku Fundazio akziodunekin kolaboratzea ingurumen eta gizarte inpaktu positiboa duten proiektuen finantzazioan.

AGINTARIAK, ARAUTZAILEAK ETA GAINBEGIRALEAK

Taldearen bokazioa aplikatu beharreko esparru arautzailea eta jarduten duen merkatuetan gainbegiraleen espektatibak betetzea da. Ildo horretatik, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Aplikatu beharreko arau eskakizunak eta gainbegiraleen ezartzea.
- Jasangarritasunari dagokionez, garapena eta hobekuntza ahalbideratzen duten gainbegiraleen gomendioak sustatzea eta ezartzea.
- Arautzaile eta gainbegiraleekin elkarriketa positiboa sustatzea ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreak kudeatzeko eta bezeroak trantsizioan laguntzeko.
- Kutxabank Taldeak jarraitutako estrategia fiskala Taldeko erakunde guztien zerga-betebeharrak zehatz-mehatz betetzera zuzenduta dago, jarduten duten lurralde-eremuan eskumena duten zerga-agintaritzen aurrean. Horretarako, Taldearentzat garrantzitsua den eragiketa bakoitzean hartutako posizionamendu fiskalak behar bezala egiaztatu eta dokumentatu behar dira, eta kontuan hartu behar da, gainera, zerga-politiken arloko jarrera eta erabaki guztiek negozioaren garapen arduratsua babestu behar dutela.
- Ahal den heinean, merkatuko jardunbide onenak aplikatzea.



KOMUNIKAZIO KANALAK ETA ELKARRIZKETAK INTERES-TALDEEKIN

Taldearen interes-taldeekin lankidetzaz sustatzeko, hauekin elkarrizketa ahalbideratzen duten komunikazio kanalak mantentzeko ahaleginak egiten dira, bi alderdien arteko konfiantza sendotzeko. Alde horretatik, elkarrizketa eta informazio trukea erraz eta modu argian sustatzea ahalbidetuko duten komunikazio kanalak ezarriko dira, entitatea interes-taldeek adierazitako balioekin eta itxaropenekin bat datorren jardueraz jasangarriarekin lerrokatzeko.

Dagoeneko ezarrita daude hainbat kanal, hala nola, webguneko bezeroen arreta zerbitzua, bezeroen eta akziodunen arreta zerbitzurako sare komertzialeko bulegoak, bezeroentzako, inbertitzaileentzako, hornitzaileentzako eta taldearentzako harremanetarako gune birtualak, telefono lineak, formulario birtualak, horrez gain, elkarrizketa eraginkor eta argia bermatzeko teknologiak garatzen eta ezartzen jarraitu da, jasangarritasunaren alorrean aurrera egiteko.

7. Printzipioen antolaketa eta gobernantza esparrua

7.1 Erakunde eredua

Taldeak banku jasangarriko eredua sustatzen du bezeroei berotegi-efektuko gas emisio gutxiagoko ekonomia ez intentsiboagorako trantsizioan lagunduz, ingurumen, gizarte eta gobernantza arriskuak zuhurtziaz kudeatuz.

Horren harira, erakunde ereduan nabarmentzen dira: Jasangarritasun Arloa eta Batzordea.

- Jasangarritasun Batzordea Presidentetzaren menpe dago. Taldeak jasangarritasunean egiten dituen ekimen guztiak zeharka sustatzea eta koordinatzea du xede, baita kudeaketan eta egunerokotasunean jasangarritasunaren mailakako integrazioan sail guztiak laguntzea ere.
- Jasangarritasun Batzordea Presidenteak, Kontseilari Delegatuak, Estrategiaren Zuzendari Nagusiak eta Jasangarritasun Zuzendariak osatzen dute. Gainera, Goi Zuzendaritzako beste kide batzuk parte hartu dezakete lantzen den gaiaren arabera. Taldean jasangarritasun jarduerak sustatzea, kontrolatzea eta jarraipena egitea du xede, baita Jasangarritasun Arloaren funtzioa garatzeko gainontzeko arloen koordinazio egokia bermatzea ere.

Era berean, kontuan hartu behar da arrisku mota bakoitza koordinatzen duten arloetako bakoitzak izango duela arrisku motak kontrolatzeko esparruetan integratzea bultzatzeko ardura (kreditua, likidezia, merkatua, eragiketak, eta abar), dagozkien kudeaketa eta kontroleko Politiketan eta Esparruetan ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreak barneratzen direla zainduz. Hau da, ingurumen, gizarte eta gobernantza arrisku faktoreak aurretik zeuden arrisku kategorien azpiko arrisku faktoretzat hartzen dira.

Taldearen konpromisoa jasangarritasun arloan zeharka adierazten da Kutxabank S.A. enpresan eta Mendeko Sozietateetan, ekimen espezifikokoak dituzte, negozio eredu jasangarrian aurrera egiteko helburua betetzeko, ingurumen, gizarte eta gobernantza arloetan inpaktu positiboa areagotze aldera, eta arriskuak zuhurtziaz eta Taldearen xedearekin modu koherentean kudeatuz.

7.2 Gobernu eredua

Kutxabank Taldearen Gobernu Organoak dira jasangarritasunaren integrazio progresibo eta osorako estrategia korporatiboa bultzatzeko arduradun nagusiak.

- **Gobernu Organoak:** Taldearen Gobernu Organo ezberdinei (Administrazio Kontseilua, Arriskuen Kontrolaren Batzordea, Auditoretza Batzordea eta Batzorde Betearazlea) funtzio espezifikokoak esleitzen zaizkie klima, ingurumen, gizarte eta gobernantza arriskuei dagokienez. Gainbegiratze eta onespen eginkizunez eta estrategia eta helburu zehatzak garatu eta ezartzeaz arduratzen da, jasangarritasunaren alorreko funtzioak aurrera eramateko, politiken bertsio berriak onartuz bilakatzen ari dena, eta arriskuen lorreko kompetentzia eta esperientziak

kontuan hartzen dituena. Zentzu horretan, aipatu beharra dago Administrazio Kontseiluaren Araudia, honen betekizunei dagokienez, gehienbat:

- Klima eta arrisku faktoreak kontuan hartzen dituzten printzipio eta politikak ezartzea (5.3.q.1 artikulua), baita Arrisku Kontrolaren Batzordeko Araudia ere, arrisku mota nagusien agerpenaren beharrezko berrikuspen sistematikoari buruzkoa, kasu bakoitzean klima eta ingurumenaren arrisku faktoreak barne hartuz (18bis.4.a).
 - Sozietatearen eta Taldearen estrategia eta politika orokorreko ildoak formulatzea; programak sortzea eta gizarte xedean barne hartutako jarduera guztiak burutzeko xedeak adieraztea. Bereziki, Administrazio Kontseiluak onartuko du Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politika (5.3.m).
 - Sozietatearen eta Taldearen kudeaketa osasungarri eta zuhurra bermatzen duen gobernu sistema korporatiboa zehaztea, erakundean funtzioen banaketa egokia eta interes gatazken prebentzioa, ezarpena zaintzea eta erantzuna ematea barne hartzen duena (5.3. artikulua).
- **Batzorde betearazleak:** Jasangarritasun Politikaren edukiak garatzeko beharrezkoak diren politikak eta prozedura gidak onartzeko ardura daukate, Taldearen Gobernantza Esparruaren arabera. Era berean, Gobernu Organoei helaraziko dizkiete hitzarmenak eta onartutako erabakiak martxan jarriko dituzte.

Azkenik, aipatu beharra dago Taldeko Gobernu Organoek eta Betearazleek Taldearen estrategian ingurumen, gizarte eta gobernantza aukeren eta arriskuen integrazio sekuentzialaren prozesuaren bilakaerari buruzko informazio zehaztua lortzen jarraituko dutela.

7.3 Barne kontrolaren esparrua

Taldearen Barne Gobernuaren Politikak erakunde osoa barne hartzen duen barne kontrolaren esparrua ezartzen du, Administrazio Kontseiluaren ardura eta eginkizunak barne, baita negozio ildo guztien eta barne unitateen jarduerak ere, barne kontrolaren funtzioak, kanpora ateratako jarduerak eta banaketa kanalak barne.

Barne kontrolaren esparrua arrisku guztien eremuan aplika daiteke, ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreak barne, hurrengo bermatzeko:

- Lan eraginkor eta efizientea
- Negozioaren zentzuzko kudeaketa
- Arriskuen identifikazio, neurketa eta arintze egokia

- Barruan emandako eta kanpoan zabaldutako informazio finantzarioaren eta ez-finantzarioaren fidagarritasuna
- Prozedura administratibo eta kontable sendoak
- Taldearen politika, prozesu, arau eta barne erabakien gainbegiratze irizpideak eta aplikatu beharreko araudia betetzea.

Europako Banku Agintaritzaren (EBA/GL/2021/05) Barne Gobernu Gidalerroen arabera, Taldearen barne kontrolaren esparrua hiru defentsa ildoko ereduak osatzen du:

- Lehen babes ildoak negozio ildoen eta Taldearen euskarriaren mailan kokatzen da, non arriskuak modu zuzenean onartu eta kudeatzen diren. Horretarako, negozio ildoek mekanismo egokiak izan behar dituzte arrisku motak identifikatzeko, aztertzeko, neurtzeko, monitorizatzeko, jarraipena egiteko eta *reportinga* egiteko. Ingurumen, gizarte eta gobernantza arrisku faktoreak lehenik zeuden arrisku kategorien azpiko arrisku faktoretzat hartzen dira eta arrisku mota bakoitza koordinatzen duten arloak arduratuko dira horien integrazioa bultzatzeaz (ikus 7.1 atala).
- Bigarren babes ildoak Arriskuaren Kudeaketa Funtzioak eta Araudia Betetzearen funtzioak osatzen dute.
 - Arriskuen Kudeaketa Funtzioa (Arriskuen Kontrol Globalaren sailari esleitua) Taldeak arriskuaren gobernantza sendoa duela ziurtatu behar du, eta arriskuaren identifikazioa, azterketa, neurketa, monitorizazioa, jarraipena eta *reportinga* ikuspegi orokorretik egitea, Taldearen arrisku profil orokorraren bilakaera monitorizatuz eta zuzendaritzako eta gobernu organo nagusiei jakinaraziz. Klima eta ingurumen arriskuei dagokienez, Arriskuen Kudeaketa Funtzioa arduratze da koordinazioaz, sortzen diren arrisku mota nagusien kontrol esparruetan integratzeko.
 - Araudia Betetzeko Funtzioak (Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolerako sailari esleitua) Taldeak esparru arautzailearekiko, barne araudiarekiko eta konpetentzia eremuan aplikatu beharreko jokabide kodeekiko errespetua sustatzen du, administrazioaren isunak ekiditeko edo ospea ez kaltetzeko, Taldeari aholkularitza emanaz. Era berean, jarduketa eremuen gain politikak eta prozedurak ezarri eta/edo sustatzen ditu, lehen lerroko kontrol eta jarduerak gainbegiratzen ditu eta gobernu eta zuzendaritza organoei arriskuak bete ez direla jakinarazten die, betetze arriskua arintzeko konponketa eta aldaketa neurriak sustatuz. Klima eta/edo ingurumen arriskuak Araudia Betetzearen Funtzioak gainbegiratu behar ditu.



- Hirugarren babes ildoa Barne Auditoretza Funtzioak (Barne Auditoretzaren sailari esleitura) osatzen du, eta arrisku mota ezberdinen identifikazio, azterketa, neurketa, monitorizazio, jarraipen eta reporting mekanismoei buruzko auditoriak eta berrikuspenak egingo ditu, modu sendo eta eraginkorren ezarrita daudela eta modu sendoan aplikatzen direla ziurtatzeko. Hala, Barne Auditoretza Funtzioak klima eta ingurumen arriskuen eremuan egin beharreko jardueren berrikuspen jardueren Prozedura Orokorren Gida ezarri du.

Bigarren eta hirugarren babes ildoak Barne Kontrolaren Funtzioak osatzen du eta zuzenean Administrazio Kontseiluari eta/edo haren Batzordeei jakinarazten die.



Aldaketen kontrola

Data	Aldaketaren deskribapen laburra	Egilea
2021/05/27	Taldearen Jasangarritasun Politikaren 1. bertsioa	Jasangarritasuna
2024/05/30	Taldearen Jasangarritasun Politikaren 2. bertsioa: edukiaren eguneraketa	Jasangarritasuna